



ALDEZ AURREKO ONARPEN AGINDUA

Agindua, Ekonomiaren
Garapen, Jasangarritasun eta
Ingurumeneko eta Ekonomia
eta Ogasuneko sailburuena,
Uraren Kanonaren
Erregelamendua onartzen
duen Dekretua aldatzen duen
Dekretu-proiektua alde
aurretik onartzen duena

ORDEN DE APROBACIÓN PREVIA

Orden de la Consejera de
Desarrollo Económico,
Sostenibilidad y Medio
Ambiente y del Consejero de
Economía y Hacienda, por la
que se aprueba con carácter
previo el proyecto de Decreto
de modificación del Decreto
por el que se aprueba el
Reglamento del canon del agua

2024ko martxoaren 26ko Aginduaren bidez, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuek agindu zuten hasiera ematea Uraren Kanonaren Erregelamendua onartzen duen Dekretua aldatzen duen Dekretu-proiektua egiteko prozedurari, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Dekretu-proiektuaren xedea, funtsean, Uraren Kanonaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 229/2021 Dekretua honako aldaketetara egokitzea da: 2023ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 15/2022 Legearen azken xedapenetatik bigarrenak eta 2024ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 21/2023 Legearen azken xedapenetatik bigarrenak, Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legean egindako aldaketak.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.1 artikulua ezartzen duenez, xedapen orokorren proiektuak idatzi ondoren, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta

Mediante Orden de 26 de marzo de 2024, de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente y del Consejero de Economía y Hacienda se ordenó el inicio del procedimiento para la elaboración del proyecto de Decreto de modificación del Decreto por el que se aprueba el Reglamento del canon del agua, de conformidad con el artículo 13 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

El proyecto de Decreto tiene por objeto, fundamentalmente, la adaptación del Decreto 229/2021, de 2 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento del Canon del Agua, a las modificaciones introducidas en la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas, en la regulación del canon del agua, por la Disposición final segunda de la Ley 15/2022, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2023 y por la Disposición final segunda de la Ley 21/2023, de 22 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2024.

El artículo 15.1 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General establece que, una vez redactados los proyectos de disposición de carácter





kontsulta-izapideak egin aurretik, dagokion testu artikulatuak alde zuzenaren onarpena izan beharko du, prozedura hasteko agindua eman duen organoak erabakita.

Horregatik guztiagatik, egindako dekretu-proiektuaren testua ikusita, eta lehen aipatutako martxoaren 26ko Aginduarekin bat etorritik, honako hau,

general, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan, el texto articulado correspondiente deberá contar con la aprobación previa acordada por el órgano que haya dictado la Orden de inicio.

Por todo ello, visto el texto del proyecto de Decreto elaborado, y de conformidad con la Orden de 26 de marzo anteriormente citada,

EBAZTEN DUGU

RESOLVEMOS

Lehen. Uraren Kanonaren Erregelamendua aldatzen duen Dekretuaren proiektuaren testua alde zuzenaren onarpena.

Bigarrena. Dekretu-proiektua egiteko prozedurarekin jarraitzeko agintzea, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuen 2024ko martxoaren 26ko Aginduan (Uraren Kanonaren Erregelamendua onartzen duen Dekretua aldatzen duen Dekretu-proiektua egiteko prozedurari hasiera emateko agintzen duena) eta ekainaren 30eko 6/2022 Legean (xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzkoa) ezarritako izapideekin bat etorritik.

Hirugarrena. Alde zuzenaren onarpena dekretu-proiektuaren testua Euzko Legebiltzarrera bidaltzea, ekainaren 2ko 8/2016 Legea, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzen duena, betez.

Primero. Aprobar, con carácter previo, el texto del proyecto de Decreto por el que se modifica el Reglamento del canon del agua.

Segundo. Ordenar la continuación del procedimiento de elaboración del proyecto de Decreto, de conformidad con los trámites establecidos en la Orden de 26 de marzo de 2024 de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente y del Consejero de Economía y Hacienda, por la que se ordena el inicio del procedimiento para la elaboración del proyecto de Decreto de modificación del Decreto por el que se aprueba el Reglamento del canon del agua, y en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

Tercero. Remitir al Parlamento Vasco el texto del proyecto de Decreto aprobado de forma previa en cumplimiento de la Ley 8/2016, de 2 de junio, de modificación de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua
Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua
Consejero de Economía y Hacienda
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE



EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

...../2024 DEKRETUA,aren ...(e)koa, Uraren Kanonari buruzko Erregelamendua onartzen duen Dekretua aldatzekoa.

Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legeak, VIII. kapituluan, Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko zerga gisa sortu eta arautzen du uraren kanona. Era berean, Eusko Jaurlaritzari ahalmena ematen dio araudi hori garatzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapenak eman ditzan, eta, gaikuntza orokor horren osagarri, legeak berariaz erregelamendura jotzen du manuetan.

Hala, 2021eko azaroaren 8an, 229/2021 Dekretua argitaratu zen, azaroaren 2koa, Uraren Kanonari buruzko Erregelamendua onartu zuena, eta hura da, beraz, uraren kanona aplikatzeko araugintza-garapena.

Baina abenduaren 23ko 15/2022 Legeak eta abenduaren 22ko 21/2023 Legeak — hurrenez hurren Euskal Autonomia Erkidegoko 2023ko eta 2024ko ekitaldietarako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituzten legeak berak—, azken xedapenetako bigarrenaren bidez, aldaketak egin dituzte ekainaren 23ko 1/2006 Legean, uraren kanonaren erregulazioari eragiten diotenak, eta, beraz, aldaketa horiek egokitu eta garatu egin behar dira legearen erregelamenduan.

Bada, dekretu hau azaroaren 2ko 229/2021 Dekretua aldatzeko da, eta aipatutako aldaketak sartzeko. Gainera, zenbait aldaketa tekniko egiten ditu, uraren kanona arautzetik eratorritako betebeharrak betetzean karga administratiboa sinplifikatu eta murrizteko asmoz batez ere.

Hori dela eta, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren proposamenez, behar ziren nahitaezko txostenak egin ondoren, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorrita, eta Gobernu Kontseiluak 2024koaren ...(e)(a)n egindako bilkuran proposamena eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehen artikulua. *Uraren Kanonari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 229/2021 Dekretuaren Eranskinaren II. kapituluaren deituraren aldatzea*

Uraren Kanonari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 229/2021 Dekretuaren Eranskinaren II. Kapituluaren deitura honela idatzita geratzen da:

«II. KAPITULUA

ZERGA-EGITATEA, ZERGAPEKOAK EZ IZATEA, SALBUESPENAK, HOBARIAK ETA KONPENTSAZIOAK»

Bigarren artikulua. *Uraren Kanonari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 229/2021 Dekretuaren Eranskinaren 6. artikulua aldatzea*

Uraren Kanonari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 229/2021 Dekretuaren Eranskinaren 6. artikulua honela idatzita geratzen da:



«6. artikulua.– Salbuespenak eta hobariak.

1.- Kanona ordaindu beharretik salbuetsita dago ur kontinentalak hartzea edo sartzea erabilera edo kontsumo hauetarako:

a) Ura kontsumitu gabe erabiltzea energia lortzeko edo indar eragilea baliatzeko.

Salbuespen hori aplikatzeko, pertsona edo erakunde zergadunek eskabidea aurkeztu behar diote Uraren Euskal Agentziari, ezartzen den ereduaren arabera. Eskabidearekin batera, kontsumorako ez den erabilera hori gertatzen den lekuaren kokapen-planoa aurkeztu behar dute, eta, hor, ura hartzeko eta itzultzeko puntuak eta hartutako ura zuzenean neurtzeko mekanismo homologatuak adierazi behar dituzte.

b) Hartu den eta erabili gabe ingurunera hargunetik gertu itzultzen den kalitate eta tenperatura bereko uraren bolumena, administrazio-kontzesio edo -baimenean edo indarrean dagoen plan hidrologikoan ezarritakoaren arabera errespetatu beharreko emari ekologikoaren parte gisa itzultzen dena.

Salbuespen hori aplikatzeko, pertsona edo erakunde zergadunek eskabidea aurkeztu behar dute Uraren Euskal Agentzian, ezartzen den ereduaren arabera, eta, horrekin batera, memoria tekniko bat aurkeztu behar dute. Memoria horretan, egiaztatu behar da ur-bolumen horiek aurreko paragrafoan adierazitako betez itzultzen direla ingurunera, eta, memorian bertan, bolumen horietako ura zuzenean neurtzeko mekanismo homologatua zehaztu behar da.

c) Urtean 200 metro kubiko ur baino gutxiago hartzea edo sartzea.

Salbuespen hori aplikatzeko, pertsona edo erakunde zergadunek ez dute eskabiderik aurkeztu behar Uraren Euskal Agentzian.

2.– Zerga-oinarrian % 90eko hobaria izango du nekazaritzan eta abeltzaintzan erabiltzeko ura hartzeak edo sartzeak, baldin eta pertsona edo erakunde zergadunak Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroan inskribatutako nekazaritza-ustiategi baten titularrak badira edo nekazaritza-ustiategiaren txartela badute. Gainera, ur-azaleratzearen edo -aprobetxamenduaren Administrazioaren baimena edo emakida eduki beharko da, ura abeltzaintzarako eta ureztatzeetarako erabiliko dela dioena.

Hobari hori aplikatzeko, pertsona edo erakunde zergadunek ez dute eskabiderik aurkeztu behar Uraren Euskal Agentzian.

3.- Artikulu honetako 1. apartatuko a), b) eta c) letretan eta 2. apartatuan araututako salbuespenak eta hobariak aplikatzeko, ur-azaleratzea edo aprobetxamendua ustiatzeko baimen edo kontzesio administratiboa eduki behar da, 16. artikuluan aurreikusten den autolikidazioan jakinaraziko den eran. 2. apartatuan aurreikusitako kasuan, gainera, beharrezkoa da agertzea ura abeltzaintzarako edo ureztatzeko erabiliko dela.

Uraren Euskal Agentziak ofizioz egiaztatuko du aurreko paragrafoan xedatutakoa, bai eta artikulu honen 1. eta 2. apartatuetan aurreikusitako baldintzak betetzen direla ere, baina edozein unetan eska diezaietke pertsona edo erakunde zergadunei betetze hori egiaztatzeko dokumentazioa aurkezteko.



Gainera, beharrezkoa izango da salbuespen edo hobari horiei dagokien ur-bolumena bereizita kuantifikatu ahal izatea, ura zuzenean neurtzeko mekanismo homologatu indibidualizatuen bidez. Sistema horren bidez ezin bada zehaztu zer ur-bolumen dagoen salbuetsita edo zer ur-bolumenek duen hobaria, baimen edo kontzesio administratiboan ur-erabilera bakoitzerako adierazten diren ehunekoetatik abiatuta zehaztuko da, edo, hori ezinezkoa bada, baimen edo kontzesio administratiboan adierazitako ur-erabileretatik abiatuta zehaztuko da, horietako bakoitzerako ehuneko bera hartuta.

- 4.- Irregularitasunak, gezurrak edo iruzurrak atzematen badira aurreko 1. eta 2. apartatuetan araututako salbuespenak eta hobariak ematean eta aplikatzean, Uraren Euskal Agentziak dagokion erregularizazioa egingo du, Zergei buruzko Lege Orokorren babesean (58/2003 Legea, abenduaren 17koa), Uraren Euskal Agentziako zuzendariak berariaz ebazpen bat emanaz, eta horrek, gainera, ez du eragotziko zehapen-prozedura bat hastea.

Aipatutako ebazpena jakinarazi baino lehen, ebazpen-proposamena jakinarazi behar zaie pertsona eta erakunde zergadunei; hartara, alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, proposamena jakinarazi eta hurrengo egunetik hamabost egun igaro baino lehen».

Hirugarren artikulua. *Uraren Kanonari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 229/2021 Dekretuaren Eranskinaren 6.bis artikulua*

6 bis artikulua berri bat gehitzen zaio Uraren Kanonari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 229/2021 Dekretuaren Eranskinari, eta honela idatzita geratzen da:

- «6 bis artikulua.– Sareko urez hornitutako nekazaritzako eta abeltzaintzako erabileretarako konpentsazioa.
- 1.- Nekazaritza eta abeltzaintzako erabileretarako urez hornikuntzako saretik hornitzen diren pertsona eta erakundeek konpentsazioa eskatu eta jaso dezakete, nekazaritza eta abeltzaintzako erabilera horiengatik uraren kanonak beren fakturan duen eragina dela eta.
 - 2.- Uraren Euskal Agentziak egingo du konpentsazio hori, erregelamendu honen 6. artikulua 2. apartatuko ehunekoa erabiliz, eta konpentsatu beharreko ekitaldiari dagokion karga-tasaren arabera kalkulatu da. Horretarako, Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan inskribatutako nekazaritza-ustiategi baten titularrak izateari edo nekazaritza-ustiategiaren txartela izateari dagokionez apartatu horretan ezarritako baldintza berberak bete behar dira. Gainera, kontratu bat izan behar dute, ura abeltzaintzarako edo ureztatzeko erabiltzen dela dioena, edo entitate hornitzailearen ziurtagiria, ura nekazaritzan eta abeltzaintzan erabiltzen dela frogatzen duena.
 - 3.- Konpentsazioa aplikatzeko, nekazaritza eta abeltzaintzako erabileretarako urez hornikuntzako saretik hornitzen diren pertsona eta erakundeek aurreko ekitaldiari dagokion eskaera aurkeztu behar diote Uraren Euskal Agentziari, urte bakoitzeko lehen sei hilabeteetan, eskabide-ereduaren arabera. Eskabidearekin batera, aurreko apartatuan jarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen



dokumentazioa aurkeztu behar dute, bai eta entitate hornitzaileak egin dituen eta konpentsatu behar diren uraren fakturen kopia ere.

- 4.- Konpentsazio-eskaeraz Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiak erabakiko du. Horretarako, berariaz ebazpena eman behar du, eta ebazpen hori sei hilabete igaro baino lehen jakinarazi behar zaie eskaera egindako pertsona eta erakundeei. Epe hori konpentsazio-eskaera Uraren Euskal Agentziaren erregistroan sartzen den egunean hasiko da.

Ezezko ebazpena eman behar bada, ebazpen-proposamena jakinarazi beharko zaie eskaera egindako pertsona eta erakundeei, ebazpena jakinarazi baino lehen; hartara, alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, proposamena jakinarazi eta hurrengo egunetik hamabost egun igaro baino lehen».

Laugarren artikulua. *Uraren Kanonari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 229/2021 Dekretuaren Eranskinaren 7. artikulua*

Uraren Kanonari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 229/2021 Dekretuaren Eranskinaren 7. artikulua honela idatzita geratzen da:

«7. artikulua.– Salbuespenen eta hobarien eraginkortasuna.

- 1.- Erregelamendu honen 6. artikulua 1. apartatuko a) eta b) letretako salbuespenak aplikatzeko, berariaz Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren ebazpena behar da, eta ebazpen hori sei hilabete igaro baino lehen jakinarazi beharko zaie eskaera egindako pertsona eta erakundeei. Salbuesteko eskaera Uraren Euskal Agentziaren erregistroan sartzen den egunean hasiko da epe hori.

Ezezko ebazpena eman behar bada, ebazpen-proposamena jakinarazi beharko zaie eskaera egindako pertsona eta erakundeei, ebazpena jakinarazi baino lehen; hartara, alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, proposamena jakinarazi eta hurrengo egunetik hamabost egun igaro baino lehen.

- 2.- Pertsona edo erakunde zergadunari ebazpena jakinarazten zaion urteari dagokion autolikidazioan eta ondorengo bi urteetan gauzatuko dira 6. artikulua 1. apartatuko a) eta b) letretan araututako salbuespenak.
- 3.- Ebazpenik ez badago, eskaerak administrazio-isiltasunez baietsizat jo ahal izango dituzte salbuespenak eskatu zituztenek.
- 4.- Uraren hartze eta sarrera salbuetsiek edo hobaridunek inola ere ez dute gainditu behar kontzesioetan edo baimenetan ezarritako bolumena.
- 5.- Kontzesioaren edo baimenaren baldintzak edo aurreko artikuluko baldintzak betetzen ez badira, Uraren Euskal Agentziak kendu ahal izango ditu artikulua horretan araututako salbuespenak edo hobariak, edo haiek aplikatzea ukatu, Uraren Euskal Agentziaren zuzendariak berariaz ebazpen bat emanek. Hala badagokio, Uraren Euskal Agentziak egin beharreko erregularizazioa egingo du, Zergei buruzko Lege Orokorraren babesean (58/2003 Legea, abenduaren 17koa).

Aipatutako ebazpena jakinarazi baino lehen, ebazpen-proposamena jakinarazi behar zaie pertsona eta erakunde zergaduneei; hartara, alegazioak aurkeztu ahal



izango dituzte, proposamena jakinarazi eta hurrengo egunetik hamabost egun igaro baino lehen.

- 6.- Kontzesioaren edo baimenaren baldintzetan aldaketak gertatzen direnean, edo artikulua honen 2. apartatuan aipatutako hiru urteak igaroak direnean, 6. artikulua 1. apartatuko a) eta b) letretan araututako salbuespenak aplikatzeko, beste eskabide bat aurkeztu beharko da, edo, hala badagokio, erantzukizunpeko adierazpen bat.

Beste eskabide bat edo, hala badagokio, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkezten ez bada salbuespenaren eraginkortasuna amaitu baino hiru hilabete lehenago gutxienez, emandako salbuespena ez da berrituko beste hiru urtez.

- 7.- 6. artikulua 1. apartatuko c) letretan araututako salbuespenaren eta artikulua horren 2. apartatuan aurreikusitako hobariaren kasuan, kontzesioaren edo baimenaren baldintzetan izandako aldaketak jakinarazi beharko dizkiete pertsona edo erakunde zergadunek Uraren Euskal Agentziari, baldin eta aldaketa horiek eragina badute salbuespen hori edo hobari hori aplikatzeko baldintzak betetzeko orduan. Horretaz gainera, Uraren Euskal Agentziak, aldian behin, ofizioz berrikusiko du baldintza horiek betetzen diren».

Bosgarren artikulua. *Uraren Kanonari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 229/2021 Dekretuaren Eranskinaren 9. artikulua 2. apartatuaren aldatzea*

Uraren Kanonari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 229/2021 Dekretuaren Eranskinaren 9. artikulua 2. apartatua honela idatzita geratzen da:

«2.- Ondorio horietarako, hauek hartuko dira subjektu pasibo zergaduntzat, kontrako frogarik ezean:

- a) Ur-azaleratzea edo aprobetxamendua ustiatzeko gaitasuna ematen duen kontzesio edo baimen administratiboaren pertsona edo erakunde titularra.
- b) Ura hartzeko instalazioen pertsona edo erakunde titularra, ura kontzesio edo baimen administratiborik ez duen ur-azaleratze edo aprobetxamendu batetik datorrean.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako banaketa-instalazioen erakunde titularrak, baldin eta instalazio horietan Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo hartutako ura sartzeko bada, bertan erabiltzeko edo kontsumitzeko».

Seigarren artikulua. *Uraren Kanonari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 229/2021 Dekretuaren Lehenengo xedapen iragankorra*

Uraren Kanonari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 229/2021 Dekretuari Lehenengo xedapen iragankorra gehitzen zaio, eta honela idatzita geratzen da:



«LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA

- 1.– Erregelamendu honen 6.2 artikuluan ezarritako hobaria 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietan nekazaritzan eta abeltzaintzan erabiltzeko ura hartu edo sartzeagatik sortutako zerga-oinarriaren % 100ekoa izango da.

Era berean, pertsona eta erakunde zergadunak salbuetsita egongo dira 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietan nekazaritzan eta abeltzaintzan erabiltzeko ura hartzeagatik edo sartzeagatik dagokien kanona aitortzetik eta likidatzetik, erregelamendu honen 16. eta 17. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, baldin eta hobari hori aplikatzekoa bada ura hartzeko edo sartzeko ekintza horri. Bestalde, hasierako aitortpena aurkeztu ez badute, aipatutako 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, 2025eko ekitaldiko lehen sei hilabeteetan aurkeztu beharko dute.

- 2.– Nekazaritzan eta abeltzaintzan erabiltzeko urez hornikuntzako saretik hornitzen diren pertsona eta erakundeentzako konpentsazioa, erregelamendu honen 6 bis artikuluan aurreikusia, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldietarako izango da.

2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietan nekazaritzako eta abeltzaintzako erabileretan ura baliatzeagatik sortutako kanonaren eraginaren % 100ekoa izango da konpentsazio hori.

- 3.– 2022ko eta 2023ko ekitaldietako konpentsazioa 2024ko abenduaren 31ra arte eskatu ahal izango da».

AZKEN XEDAPENA. Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.



DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

DECRETO/2024, DE, de modificación del Decreto por el que se aprueba el Reglamento del Canon del Agua

En la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas, en su Capítulo VIII, se crea y se regula el canon del agua como tributo propio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, al mismo tiempo que se faculta al Gobierno Vasco para dictar las disposiciones reglamentarias de desarrollo de dicha regulación con una habilitación general, que se complementa con las específicas llamadas al reglamento contenidas en los diversos preceptos de la ley.

Así, con fecha 8 de noviembre de 2021 se publicó el Decreto 229/2021, de 2 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento del Canon del Agua, que es, por tanto, el desarrollo normativo para la aplicación del canon del agua.

Sin embargo, mediante la Disposición final segunda de la Ley 15/2022, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2023 y la Disposición final segunda de la Ley 21/2023, de 22 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2024 se han introducido modificaciones en la Ley 1/2006, de 23 de junio, que afectan a la regulación del canon del agua, y que, por tanto, precisan de acomodo y desarrollo en su Reglamento.

En este sentido, el presente Decreto tiene por objeto la modificación del Decreto 229/2021, de 2 de noviembre, para incorporar los mencionados cambios. Adicionalmente, se introducen determinadas modificaciones técnicas, principalmente con el objetivo de simplificar y reducir la carga administrativa en el cumplimiento de las obligaciones derivadas de la regulación del canon del agua.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente y del Consejero de Economía y Hacienda, una vez emitidos los informes preceptivos correspondientes, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día de 2024,

DISPONGO

Artículo Primero. *Modificación de la denominación del Capítulo II del Anexo al Decreto 229/2021, de 2 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento del Canon del Agua*

La denominación del Capítulo II del Anexo al Decreto 229/2021, de 2 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento del Canon del Agua, queda redactada de la siguiente manera:

«CAPÍTULO II

HECHO IMPONIBLE, NO SUJECCIÓN, EXENCIONES, BONIFICACIONES Y COMPENSACIONES»

Artículo Segundo. *Modificación del artículo 6 del Anexo al Decreto 229/2021, de 2 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento del Canon del Agua*



El artículo 6 del Anexo al Decreto 229/2021, de 2 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento del Canon del Agua, queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 6.– Exenciones y bonificaciones.

1.– Quedan exentas del pago del canon las captaciones y entradas de aguas continentales para su utilización o consumos siguientes:

a) La utilización no consuntiva para la obtención de energía o el uso de fuerza motriz.

Para la aplicación de esta exención, las personas o entidades contribuyentes deberán presentar solicitud a la Agencia Vasca del Agua, conforme al modelo que se establezca, acompañada de un plano de situación del lugar donde se produzca la citada utilización no consuntiva, con indicación de los puntos de toma y de retorno del agua, así como de los mecanismos homologados de medición directa del agua captada.

b) El volumen de agua detráído que retorna al medio sin que haya sido utilizada, en idénticas condiciones de calidad y temperatura, en un punto próximo al de detracción, como parte del caudal ecológico a respetar conforme a lo establecido en la concesión o autorización administrativa o en el Plan Hidrológico en vigor.

Para la aplicación de esta exención, las personas o entidades contribuyentes deberán presentar solicitud a la Agencia Vasca del Agua, conforme al modelo que se establezca, acompañada de una memoria técnica en la cual quede acreditado que dichos volúmenes de agua retornan la medio cumpliendo lo señalado en el párrafo anterior y en la cual se especifique el mecanismo homologado de medición directa del agua de dichos volúmenes.

c) Las captaciones y entradas con un volumen anual inferior a 200 metros cúbicos.

Para la aplicación de esta exención, las personas o entidades contribuyentes no deberán presentar solicitud a la Agencia Vasca del Agua.

2.– Se bonificará en el 90 % de la base imponible la captación o entrada de agua para el uso agropecuario, siempre y cuando las personas o entidades contribuyentes sean titulares de una explotación agraria inscrita en el Registro de Explotaciones Agrarias o dispongan de tarjeta de explotación agraria. Además se requerirá disponer de una autorización o concesión administrativa de la explotación del alumbramiento o aprovechamiento, en la cual figure como destino del agua el uso ganadero o el riego.

Para la aplicación de esta bonificación, las personas o entidades contribuyentes no deberán presentar solicitud a la Agencia Vasca del Agua.

3.– Para la aplicación de las exenciones y bonificaciones reguladas en las letras a), b) y c) del apartado 1 y en el apartado 2 anteriores de este artículo, será necesario disponer de la correspondiente autorización o concesión administrativa de la explotación del alumbramiento o aprovechamiento objeto de las mismas, tal y como se informará en la autoliquidación prevista en el artículo 16. En el supuesto previsto en el apartado 2 se requerirá, además, que figure como destino del agua el uso ganadero o el riego.



La Agencia Vasca del Agua comprobará de oficio lo dispuesto en el párrafo anterior, así como el cumplimiento de los requisitos previstos en los apartados 1 y 2 del presente artículo, pero podrá requerir en cualquier momento a las personas o entidades contribuyentes que aporten la documentación acreditativa de dicho cumplimiento.

En su caso, además, será necesario que pueda ser cuantificado separadamente el volumen de agua correspondiente a dichas exenciones o bonificaciones, mediante mecanismos homologados de medición directa del agua individualizados. De no poder determinarse el volumen de agua exento o bonificado mediante este sistema, se procederá a su determinación a partir de los porcentajes que para cada uso del agua se reflejen en la autorización o concesión administrativa o, si ello no fuese posible, a partir de los usos del agua señalados en la autorización o concesión administrativa considerando igual porcentaje para cada uno de los mismos.

- 4.- En caso de detectar irregularidades, falsedad o acciones fraudulentas en la concesión y en la aplicación de las exenciones y bonificaciones reguladas en los apartados 1 y 2 anteriores, la Agencia Vasca del Agua llevará a cabo la regularización que corresponda, al amparo de la Ley 58/2003 de 17 de diciembre, General Tributaria, mediante resolución expresa del Director o Directora de la Agencia Vasca del Agua, sin perjuicio de la apertura de un procedimiento sancionador.

Previamente a la notificación de la citada resolución se deberá notificar a las personas y entidades contribuyentes la propuesta de resolución para que, en el plazo de quince días, contados a partir del día siguiente al de su notificación de dicha propuesta, puedan presentar alegaciones.»

Artículo Tercero. *Artículo 6 bis del Anexo al Decreto 229/2021, de 2 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento del Canon del Agua*

Se añade un nuevo artículo 6 bis al Anexo al Decreto 229/2021, de 2 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento del Canon del Agua, con la redacción siguiente:

- «Artículo 6 bis.- Compensación a los usos agropecuarios abastecidos por agua de red.
- 1.- Las personas y entidades que reciban el agua para usos agropecuarios a través de suministro de red podrán solicitar y recibir compensación por el impacto del canon del agua por dichos usos agropecuarios en su factura.
 - 2.- Esta compensación será efectuada por la Agencia Vasca del Agua en el mismo porcentaje al previsto en el apartado 2 del artículo 6 del presente Reglamento, y se calculará de acuerdo al tipo de gravamen correspondiente al ejercicio a compensar. Para ello, se deberán cumplir los mismos requisitos previstos en dicho apartado respecto a ser titulares de una explotación agraria inscrita en el Registro de Explotaciones Agrarias o disponer de tarjeta de explotación agraria. Asimismo, deberán disponer de un contrato en el cual figure como destino del agua el uso ganadero o el riego, o certificado de la entidad suministradora que acredite que el uso del agua es agropecuario.



- 3.– Para la aplicación de esta compensación, las personas y entidades que reciban el agua para usos agropecuarios a través de suministro de red deberán presentar a la Agencia Vasca del Agua, en los seis primeros meses de cada año, solicitud correspondiente al ejercicio inmediatamente anterior, conforme al modelo que se establezca, junto con la documentación que acredite el cumplimiento de los requisitos previstos en el apartado anterior, así como con copia de las facturas de agua de la entidad suministradora objeto de compensación.
- 4.– La solicitud de compensación será resuelta por el Director o Directora General de la Agencia Vasca del Agua mediante resolución expresa, que deberá notificarse a las personas y entidades solicitantes en un plazo máximo de seis meses. A estos efectos, el plazo se contará desde la fecha en que la solicitud de compensación haya tenido entrada en el registro de la Agencia Vasca del Agua.

En su caso, se deberá notificar a las personas y entidades solicitantes la propuesta de resolución denegatoria con carácter previo a la notificación de dicha resolución, para que en el plazo de quince días contados a partir del día siguiente al de la notificación de la propuesta, puedan presentar alegaciones.»

Artículo Cuarto. *Modificación del artículo 7 del Anexo al Decreto 229/2021, de 2 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento del Canon del Agua*

El artículo 7 del Anexo al Decreto 229/2021, de 2 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento del Canon del Agua, queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 7.– Efectividad de las exenciones y bonificaciones.

- 1.– Para la aplicación de las exenciones reguladas en las letras a) y b) del apartado 1 del artículo 6 del presente Reglamento se requerirá de resolución expresa del Director o Directora General de la Agencia Vasca del Agua, que deberá notificarse a las personas y entidades solicitantes en un plazo máximo de seis meses. A estos efectos, el plazo se contará desde la fecha en que la solicitud de exención haya tenido entrada en el registro de la Agencia Vasca del Agua.

En su caso, se deberá notificar a las personas y entidades solicitantes la propuesta de resolución denegatoria con carácter previo a la notificación de dicha resolución, para que en el plazo de quince días contados a partir del día siguiente al de la notificación de la propuesta, puedan presentar alegaciones.
- 2.– Las exenciones reguladas en las letras a) y b) del apartado 1 del artículo 6 se practicarán en la autoliquidación correspondiente al año en que se comunique su resolución a la persona o entidad contribuyente, y en los dos años siguientes.
- 3.– En defecto de resolución, quienes solicitaron las exenciones podrán entender estimadas sus solicitudes por silencio administrativo.
- 4.– Las captaciones y entradas de aguas exentas o bonificadas en ningún caso superarán el volumen de las establecidas en las concesiones o autorizaciones.
- 5.– En caso de incumplimiento de las condiciones de la concesión o autorización, o de los requisitos previstos en el artículo anterior, la Agencia Vasca del Agua podrá retirar el otorgamiento o denegar la aplicación de las exenciones o de la bonificación reguladas en el mencionado artículo, mediante resolución expresa del Director o Directora de la Agencia Vasca del Agua. En su caso, la Agencia



Vasca del Agua llevará a cabo la regularización que corresponda, al amparo de la Ley 58/2003, de 17 de diciembre, General Tributaria.

Previamente a la notificación de la citada resolución se deberá notificar a las personas y entidades contribuyentes la propuesta de resolución para que, en el plazo de quince días, contados a partir del día siguiente al de la notificación de dicha propuesta, puedan presentar alegaciones.

- 6.– En relación a las exenciones reguladas en las letras a) y b) del apartado 1 del artículo 6, cuando se produzcan cambios en las condiciones de la concesión o autorización, así como cuando hayan transcurrido los tres años a los que se refiere el apartado 2 de este artículo, para la aplicación de las mismas será necesario presentar una nueva solicitud o, en su caso, una declaración responsable.

La no presentación de una nueva solicitud o, en su caso, declaración responsable, al menos con 3 meses de antelación a la fecha de expiración de la efectividad de la exención, supondrá la no renovación por otros tres años de la exención otorgada.

- 7.– En el caso de la exención regulada en la letra c) del apartado 1 del artículo 6 y de la bonificación prevista en el apartado 2 de dicho artículo, las personas o entidades contribuyentes deberán notificar a la Agencia Vasca del Agua los cambios en las condiciones de la concesión o autorización que afecten al cumplimiento de los requisitos previstos para la aplicación de las mismas. Adicionalmente, la Agencia Vasca del Agua revisará de oficio periódicamente el mantenimiento de dichos requisitos.»

Artículo Quinto. *Modificación del apartado 2 del artículo 9 del Anexo al Decreto 229/2021, de 2 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento del Canon del Agua*

El apartado 2 del artículo 9 del Anexo al Decreto 229/2021, de 2 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento del Canon del Agua, queda redactado en los siguientes términos:

«2.– A estos efectos, se considerará sujeto pasivo contribuyente, salvo prueba en contrario, a:

- a) La persona o entidad titular de la concesión o autorización administrativa que habilita la explotación del alumbramiento o aprovechamiento.
- b) La persona o entidad titular de las instalaciones de captación de agua, cuando el agua provenga de un alumbramiento o aprovechamiento que no disponga de concesión o autorización administrativa.
- c) Las entidades titulares de las instalaciones de distribución situadas en la Comunidad Autónoma del País Vasco a las que se incorpora el agua captada fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco para su utilización o consumo en la misma.»

Artículo Sexto. *Disposición transitoria primera del Decreto 229/2021, de 2 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento del Canon del Agua*

Se añade una Disposición transitoria primera al Decreto 229/2021, de 2 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento del Canon del Agua, con la redacción siguiente:

**«DISPOSICIÓN TRANSITORIA PRIMERA**

- 1.– La bonificación establecida en el artículo 6.2 de este Reglamento será del 100% de la base imponible por la captación o entrada de agua para usos agropecuarios producida en los ejercicios 2022, 2023 y 2024.

Asimismo, las personas y entidades contribuyentes quedarán exentas de declarar y liquidar el canon del agua según lo previsto en los artículos 16 y 17 de este Reglamento, por la captación o entrada de agua para usos agropecuarios a la que sea de aplicación dicha bonificación, producida en los ejercicios 2022, 2023 y 2024. Por otra parte, si no hubiesen presentado declaración inicial, según lo previsto en el artículo 17 mencionado, deberán presentarla en los seis primeros meses del ejercicio 2025.

- 2.– La compensación a las personas y entidades que reciben el agua para usos agropecuarios a través de suministro de red, prevista en el artículo 6 bis de este Reglamento, tendrá efectos para los ejercicios iniciados a partir del día 1 de enero de 2022.

Dicha compensación será del 100% por el impacto del canon del agua devengado durante los ejercicios 2022, 2023 y 2024 por los usos agropecuarios.

- 3.– La solicitud de la compensación correspondiente a los ejercicios 2022 y 2023 podrá realizarse hasta el 31/12/2024.»

DISPOSICIÓN FINAL. El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.